

# noaua

Hurbilagok ere #Kilometroak15 ekimena lagunduko du

Martxoaren 26an Sutegin, "Laburbira" film laburren proiektzioa

Ostiral honetan, eguzki-eklipse partziala



Zubietatik helduko da, igande honetan eguerdiko 13:41ean

**Ika Ika Ika, hemen dator Korrika!**

**GOLDWELL**  
**ELUMEN**

*il  
e  
a  
p  
a  
i  
n  
d  
e  
g  
i*

**mistoa**

Koloraziotan teknika  
berriak eta iraunkorrrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951



**FUNERARIA  
GONZALEZ**  
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

·EDOZEIN ASEGURU IZANDA  
(OCASO, SANTALUCIA...)  
HERIOTZA GERTATZEN BADA,  
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,  
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

**ASEGURUAREKIN IZAPIDE GUZTIETAZ  
ARDURATZEN GARA ZUZENEAN,**  
(MOMENTU LATZ HAUETAN ASEGURUAREN POLIZA ZENBAKIA  
EDO ERREZIBOA EDO HORRELA KORIK EZ DUGU BEHAR,  
ASEGURUAREKIN ZUZENEAN IZAPIDEAK EGITEN DITUGU)

**943 36 21 63 (24H)**

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK  
·Asegururik EZ duten familientzat Usurbilgo  
beilatokia DOAN (gure eskutik)

info@funerariagonzalez.es www.funerariagonzalez.es

Lehenengo 6  
erosleentzako,  
garaje bikoitza  
banakako  
prezioan!

**ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA**

**188.000 €<sup>tik</sup>**

**12 ETXEBIZITZA  
INGURUNE PAREGABEAN  
Agerreazpi<sup>n</sup>**

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

**USURBILEN**

**VIVIENDAS LANIN S.L.**  
Lazkano Pasealekua, 1<sup>o</sup> Behea  
20009 Donostia E.:contacto@viviendaslanin.com

**943 46 88 60**

[www.viviendaslanin.com](http://www.viviendaslanin.com)




## Albistea iruditan

# Elkarlanean urrats berriak emateko gonbita

**N**orabide berean bat eginik, elkarlanean pauso berriak ematen segitzeko deia egin zieten larunbat goizean Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkarteko kideek, txoko ezberdinetatik Sutegira gonbidatu zituzten herritar, eragile eta erakundeei. Elkarlanean jarraituz, urrats berriak ematera deitu zitzairen, geurea zero zabor lurraldea izan arte.

Ingurumen alorreko eragileak, sindikatuak, alderdi politikoak, enpresak, hezkuntza munduko ordezkariak, alkateak, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioko kideak... Eta nola ez, usurbildar eta zubietarrak. Arlo ezberdinetako ordezkariak gonbidatu nahi izan zituzten kultur etxeko auditorioan antolaturiko "Aro berria, zero zabor aroa" ekitaldi-ikuskitzunerara. Guztiak batera, atzera begira jarri ziren lehenik. Ordu erdi inguruko bideo proiektio batekin, azken hamarkadotan hondakinen kudeaketak izandako bilakaera iruditan ikusi ahal izan zuten; erraus-tegiaren mehatxua, proiektu honi aurre egiteko eta alternatibak eskaintzeko sortutako herri mugimendua, gaikako bilketa izugarri igoarazi duten hondakinak kudeatzeko bestelako es-



**Ekitaldi amaieran, herritar, eragile eta erakundeetako ordezkariak zabal bat igo zen Sutegiko oholtzara. Zero zabor mugimenduaren ikur diren uztaiak dituzte eskutan.**

perientzien abiatzea, eman den aro aldaketa... Zenbait une gogoangarriez oroitzeko aukera egon zen baita; 2011ko Zubietako flash mob ekimena, errausketaren aurkako mobilizazio historikoak...

Eta noski, bide luze honetan, bestelako eredu bat posible zela sinistuta, zero zabor eredua sustatzen, gauzatzen, garatzen elkarlanean aritu diren herritar, eragile eta erakundeen parte

hartzea ere islatu zen proiektioan. Bide beretik jarraitzeko gonbita luzatu zuten, errauste planta bertan behera geratu osteko aro berri honetan, zero zabor garai honetan ere. "Ezin dugu aukera hori galtzen utzi, etorkizun iraunkorra eraikitzea guztion ardura baita. Jendartea osatzen dugun alor guztiek daukagu gure ardura, baina baita zer irabazia ere", zero zabor mugimenduko kideen esanetan.

## Laburrean

### Energia berriztagarriari buruzko ikastaroak

Energia Berriztagarrien inguruko bi ikastaro prestatu dituzte Zubiguneren. Eguzki energia fotoboltaikoa batetik, eguzki energia termikoa bestetik. Ikastaroak %100 diruz lagunduak izango dira. Informazio gehiagorako: ZubiGune Fundazioa: 943 562 061 / [www.zubigune.org](http://www.zubigune.org)

### Martxoko azken larunbatean, kantu-jira

Otsailekoa berezia izan zen. Gasteiztar kantarien laguntzaz aritu ziren, eta eguerditik. Martxokoan ohiko ohiturak berreskuratuko dituzte. Martxoaren 28an, arratsaldeko 19:00etan Mikel Laboa plazatik abiatuta afal ordura arte, kalez kalez kantu kantari ibiliko dira.

### Datorrena, Aste Santu aurreko azken astekaria

Martxoaren 27an argitaratuko dugu opor aurreko azken NOAUA! 610. zenbakirako ohar edo zorion agurrik baldin baduzue, hilaren 23a baino lehen ekarri NOAUA!ko egoitzara, edo idatzi [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus) helbidera. Apirilaren 17an plazaratuko dugu hurrena.

# noaua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil

943 360 321 // [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com) // [www.noaua.com](http://www.noaua.com)

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**

Idoia Torregarai.

**Aldizkari koordinatorak:**

Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,

[publizitatea@noaua.com](mailto:publizitatea@noaua.com)

**Diseinu berria:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua,**

[erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com):

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Banaketa:** Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiet, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Arna-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak

Euskal Herra!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Imanol Ubeda

## Gure ospakizunak

Tanatorio, hilerrri eta eliza partean ibiltzea tokatu zaigu azkenaldian. Ez naiz baina, horrelako xehetasunetan murgilduko gaur.

Zer diren gauzak. Aspaldian ikusi gabeko jendearekin egoteko aukera ematen dute horrelakoek. Eta haiek esanda dakit ikusi ez ditudan beste batzuen bizimodua zertan den. Lehen akaso bitxia suertatzen zen. Baina gero eta gehiago dira hementik kanpora lanera, beharrera atera behar izan duten gazteak eta ez hain gazteak. Eta ez dira plazer hutsez abiatu. Hemengo etorkizun labainkorraren aldean, aukera sendo baten bila, noizbait gauzak aldatuko diren esperantzaz. Baina urteak aurrera doaz, bizitza ere bai, eta atzerrian bada

ere, zure txokoa osatzen hasten zara, lagun berriak egiten dituzu, maitemindu... "Hango" eta "hemengo" kontzeptuen muga zeharo lurrindu arte.

Badut lagun bat Amsterdamen lanean. Duela urte batzuk joan zen, eta han ari da dentista gisa lanean. Han ezagutu zuen bere egungo mutila, danimarkarra bera. Urtean behin edo bitan etortzen dira Euskal Herrira. Haiek ere, Eguberrietan edota gertaera bereziren bat ematen denean etortzen dira gure artera, dela ezkontza bat, dela hileta elizkizun bat.

Lagun honi ere, senide bat hil zitzaion duela gutxi eta Amsterdametik Euskal Herrira etorri zen -bere mutil danimarkarrarekin etorri ere-, senideari azken agurra ematera.

Tanatorioan izan ziren lehenbizi, hilerrrian lur eman zioten senideari eta hileta elizkizunean hartu zuten parte ondoren.

Danimarkarra harrিতa zegoen nonbait. Jende ugari batu zelako tanatorioan, hildako senitartekoei animoak ematera. Ez omen zuen horrelakorik ikusi. Eta zoragarria iruditu omen zitzaion elizkizuna bera, ez zuen aurretik antzekorik ikusi inoiz. Organoaren hotsa elizan, euskarazko kantuak boz altuan, senideek jasotako elkartasuna... Laino batean zen gizona. Iritsi zen zepilloaren txanda:

- Orain dirua ematen du jendeak, aurreratu zion nire lagunak bere mutil danimarkarrari.

Kartera zabaldu eta 20 euroko billetea atera zuen. Nire laguna,

seko harrিতa, ahopeka hasi zitzaion mutil danimarkarrari:

- Motel, baina nora zoaz 20 eurokoarekin? Jendeak txanponak botatzen ditu. Ez al dituzu xentimo batzuk suelto?

- Hain ekitaldi ederra eta nola botako ditut ba xentimo batzuk?

Hain eskertua zegoen sentitukoarekin, eta ikuskizunarekin, huskeria iruditu zitzaiola txanpon triste batzuk botatzea.

Igandean iritsiko da Korrika gure artera. Gustura gonbidatuko nituzke nire laguna eta bere lagun danimarkarra Hipodromoko zubira. Elizkizunarekin txoratuta geratu bazen, ez dut imaginatu ere egin nahi zer sentituko lukeen euskararen aldeko ospakizun ero honen aurrean. Santuenera iritsi orduko kartera hustuko luke gizonak.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Ilazki Gainza | Luis Aranalde | Nerea Zinkunegi | Maialen Unanue | Idoia Torregerai | Joxe Piñas

## Nork bere enpresa sortu eta kudeatzeko ikastaro berria eskualdean

Zure enpresa nola sortu eta kudeatu ikastaro berria antolatu dute eskualdeko udalek, Usurbilgoak tartean, eta Lanbidek. "Ekin-tzaileei eta lan merkaturatzeko helburuarekin auto enpleguan aukera ona ikusten dutenei zuzenduta dago", lehenago

ere antolatu izan duten prestakuntza ekimen hau. Gertu Asesores S.L. enpresak bideratuko du aipatu ikastaroa, doan, martxoko azken astean.

Saio bana antolatu dute martxoaren 24 eta 25erako, Hernaniko Gabriel Zelaia eraikinean. Ikastaroan parte hartzeko auke-

ra izango da; bai goizez (9:00-13:00 artean), baita arratsaldez ere (15:00-19:00 artean). Izen emateko deitu 943 30 42 21 telefono zenbakira (Nerea Yurrebasogatik galdetu), gerturatu eskualdeko Lanbideren bulegoren batera edo idatzi ekinean@andoain.org helbidera.

### Rafafa magoa, ludotekan

Etxeko txikientzako magia ikuskizuna antolatu dute martxoaren 27rako, arratsaldeko 18:00etan Bihurri haur ludotekan. Rafafa magoa bertaratuko da Gazteleku ondoko egoitzara, 3-6 urte arteko haurrak liluratzerako.

■ Martxoak 27 ostirala.

■ 18:00etan Bihurri haur ludotekan.

[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)

USURBILGO ATARIA

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

## Xabier Iturbek hitzaldia eskaini zuen Usurbilgo batzokian



Josune Urkola EAJ-PNVko alkategaia eta Xabier Iturbe Kutzako presidentea.

**E**AJ-PNVk gonbidatuta, Kutzako presidente Xabier Iturbe Usurbilgo batzokian izan zen aurreko ostegunean, egoera ekonomikoaren eta Kutzabanken inguruko hitzaldia ematen. Josune Urkola alkatetzarako hautagai jeltzaleak aurkezpen lanak egin ondoren, "Xabier Iturbek egungo egoeraren azterketa sakona egin zuen, eta motel bada ere, ekonomia, hobetzen ari dela ziurtatu zuen. Beraz, itxaropenerako garaia zabal-tzen ari dela aurreratu zuen", Usurbilgo EAJ-PNVk aditzera eman digunez.

### Jende asko batu zen

Kutzako presidenteak, besteak beste, langabezia, defizit publikoa, esportazioak, finantziarioa eta enpresen egoera izan zituen hizpide. "Kutzabanken sorrerari buruz ere mintzatu zen, bai eta gizarte ekintzari buruz, hiru kutxen fusioaren ondoren bermatuta dagoela nabarmen-tzeko".

Usurbilgo EAJ-PNVko kideek adierazi digutenez, "hitzaldiak interes handia sortu zuen, eta jende mordoak elkartu zen batzokian".

### Zubietan ere, laster atez ate hasiko dira hondakinak biltzen

Laster hondakinak atez ate biltzen hasiko dira Zubietan. Usurbilgo Udala eta Zubietako Herri Batzarra astelehenean aurkeztekoak ziren herriarrei, sistema berriaren inguruko nondik norakoak. "Herri honen berezitasunak direla eta, soilik lehen fasea gauzatu da, hau da, Santueneatik Zubietako Kaxkoraino dagoen tartea, Araundi kalea, Txakurtxulo eta Barrenetxeko etxebizitzak", bilerako deitzaileek berri eman dutenez. Zehaztasun gehiago, datorren astekearian.

### Urriaren 13an hasiko da Marisa Alejandoren aurkako epaiketa

Bitan atzeratu ostean, urriaren 13an abiatuko da Madrilgo Espainiako Auzitegi Nazionalan, Marisa Alejandro usurbildarraren eta Ezker Abertzaleko beste 34 kideren aurkako epaiketa. Antza, Auzitegi Nazionalak epaiketa hasiera eguna jakinarazi die auziperatuei. Epaiketa egunen egutegia baita, eta aurreikusten denez, abenduaren 18ra arte luzatuko da epaiketa. 6-10 urte arteko espetxe zigorrak eskatzen dituzte 35 euskal herritarrontzat.



Bitan atzeratu da epaiketa. Denbora honetan, herritar askoren babesa jaso du Marisa Alejandrok.

## EH Bilduren batzar erabakigarria

**U**dal hauteskundearen inguruan lanean jarraitzen du EH Bildu koalizioak. Larunbat honetako batzarra, ordea, erabakigarria izango da. Maiatzaren 24ko udal hauteskundeetarako koalizioaren zerrenda eta herri programa erabakiko baitira bertan. Bilerara joaterik ez duenak, ekarpenak egin ditzake helbide honetan: [ehbildusurbil@gmail.com](mailto:ehbildusurbil@gmail.com)



Larunbatean, 11:00etan hasiko da bilera Potxoenean.

### LOGOPEDIA

Haurrak / Nerabeak / Helduak  
TERAPIA MIOFUNZIONALA



Aurreko hitzordua: 635 701 374

- Arnasketa arazoak, disglusia, degluzioa
- Ahotsaren tratamenduak: disfonia funtzionala simple eta konplexua, disfemiak...
- Hizkuntza eta ulermenaren zailtasunak: dislexia, disortografia, diskalkulia, TDA-H, disartriak...

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

# Hurbilago Elkarteak ere #Kilometroak15 ekimena lagunduko du

**K**ilometroak15 ekimenari begira, elkarlanean hitzarmena sinatu dute Usurbilgo Merkataritza eta Ostalarien Elkarteak, Hurbilagok, eta Udaregi Ikastolak. "Kilometroak ekimenean bi erakundeen arteko elkarlana aurreikusten da, biek bat egiten duten helburuak direlako, tokiko ekonomia sustatzea, bertako kultura eta gizarte ohiturak babestea, herritarren arteko harreman sareak osatzea, finean, herrigintzarako ekarpenak egitea. Ekimen honen Usurbil eta herritarrentzat izango duen garrantzia handia izango da, eta indarrak batzeko nahia aurkeztu dute bi aldeek", hitzarmenak jasotzen duenez.

Elkarlan honen baitan, 5.000 euroko diru-laguntza emango dio Hurbilago Elkarteak Udaregi Ikastolari. Hau da, bai urtean zehar antolatuko diren ekimenetarako eta #Kilometroak15 egunerako, antolakuntzak 5.000 eurora arteko gastua egin ahal du Hurbilagoko kide diren establezimenduetan. "5.000 euroko saldo erabilgarria duen Hurbilagoko kreditu txartela entregatuko zaio Udaregi Ikastolari (goiko irudikoa), Kilometroak jaia antolatzeko Hurbilagoko saltoki eta tabernetan egiten diren gastuetarako. Gastu hori Hurbilagoko saltoki ahalik eta gehien artean banatzea bultzatuko da eta horretarako, 5.000 euro horietan



5.000 euroko txeke hau baliatuko du #Kilometroak15 antolaketa batzordeak, Hurbilagoko kide diren establezimenduetan baliatuzeko.

## HURBILAGO-UDAREGI

**"#Kilometroak15 egunerako, antolakuntzak 5.000 eurora arteko gastua egin ahal du doan Hurbilagoko kide diren establezimenduetan"**

tik gehienez ere 300 euro erabili ahal izango dira saltoki berean erosketak egiteko", hitzarmenaren arabera.

## Tonboletarako materiala doan

Hurbilagoren bazkideztza promozioetan, ostalari eta merkatarien elkarteak Gattunk denda promozionatuko du baita. Eta Hurbilagoko bazkideek, #Kilometroak15 ekimenaren aldeko denda ere erabili ahal izango dute bazkideztza txartela. "Hur-

bilago txartelarekin ordaindu eta Hurbilago txartelaren deskontu eta promozioak eskuratu ahal izango dituzte Kilometroak 2015 dendako bezeroek", hitzarmenak dioenez.

Bestalde, maiatzaren 17ko Sagardo Egunean, Santixabeletan eta #Kilometroak15 egunez antolatuko diren tonboletarako, "zozketagarriak izan daitezkeen artikulu eta produktuak doan ipiniko dituzte Hurbilagoko dendek; trukean, produktu horiek eskaintzen dituzten denda publikitate egingo du Kilometroakek".

Udaregi Ikastolak bere aldetik, "Kilometroak ekimenetarako egin beharreko erosketak Hurbilagoko saltokietan egiteko konpromisoa hartzen du". Eta urtean zeharreko publikitate euskarrietan "Hurbilago elkartearen irudiari presentzia emateko ahalegina egingo du Kilometroakek".

## Gattunk denda, udaberriko kolorez

Estreinatzean dugun urtaro berri-rako ere Gattunk jantzirik eta osagarririk ez zaigu faltako soinean. Salgai dituzte galtza motzak, mahuka motzeko kamisetak, galtza luzeak, biserak... Eta udaberriko arropa gehiagoren esperoan dira saltokian. "Blusoiak iristear dira", dendako arduradunen esanetan.

Eta arropaz gain, ezin falta ezta osagarriak ere, mantalak... Eta pasa berri den neguko kanpainan salgai izan duten arropa. Mahuka motzeko produktuak badituzte tartean.

## Kirola egiteko kamisetak

Lilatoiko kamiseta teknikoak salgai dituzte oraindik, Gattunk denda. 18 eurotan eskura ditzakezue. Aproposa, igandean, Korrikan erabiltzeko. 19. Korrikan ere Gattunk marka islatu dadin.

## Balkoirako banderola

Gattunk denda salgai egoten jarraitzen dute bestalde, #Kilometroak15 ekimenaren aldeko banderolak. 5 eurotan eskura daitezke.

## Zumetatarren serigrafiak

150 eurotan, Gattunk denda.



Astelehenetik larunbatara: 10:30-13:00 // 17:00-20:00 (astelehen goizak, larunbat arratsaldeak itxita).

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**TXAPELDUN**  
TABERNA  
razioak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak...  
Muna Iurra 2, 943 11 82 53

**ARRANDEGIA**  
**PELLO**  
PUNTAPAX 7  
943 36 21 64  
USURBIL

**Patri Jatetxea**  
K/nagusia 14. © 943 362 725

# Euskahalduntzearen aldeko martxa, heltzear

**I**ka, ika ika... hemen dator korrika! Badator hemeretzigarrena. Ostegunean abiatuko da, Euskal Herria euskahalduntzea sustatu nahi duen euskararen aldeko ekimena; arratsaldeko 17:00etan, Urepeletik. Herrialdez herrialde hainbat jira eta bira egin ostean helduko da Zubietara, Usurbil, eta Aginagara. Igande eguerdian, martxoaren 22an. Jai eta aldarrikapen giroan.

Herriko eragile, elkarte, erakunde, ikastetxe eta abarretako ordezkarietatik eskuz esku pasako da lekukoa Zubietako hipodromo parean hasi eta Aginagako Mapileraino. Gogoan izan, aurreikusitakoa baino hamar bat minutu beranduago helduko dela 19. Korrika eta ordubete beharko du hipodromo paretik Mapilera heltzeko. Euskararen aldeko ekimena, inguruotatik 13:40-14:40 artean igaroko dela espero da. Dortsalak banatu eta egin beharko duten ibilbide zatiaren inguruko informazioa eskaintzekoak dira egunotan Korrikako arduradunak, lekukoa hartuko dutenei. Gainerakook Korrikako furgoneta zaudeten lekura hurbiltzean sartu jendartean, eta segi ibilgailuari.

## Ibilaldi kulturala eta erromeria

Argi denez, 2015a euskararen urtea izango dugu Usurbilen. Urriaren 4an #Kilometroak15 eguna izango dugu eta asteburu honetan, 19. Korrika. Bi ekimenok bateratzea erabaki dute, batean zein bestean antolaketa lanetan dabil-tzan taldeek. Eta hortik sortu da Badok 15.

Martxoaren 22an, Korrika egun osatu bat izango dugu. Eguerdiko lasterketaren ostean, ibilaldi kulturala antolatu dute herri erdigunetik barrena. Egunero igaro edo egoten garen Kaxkoko hainbat txoko hobeto ezagutzeko aukera egongo da. Antolatzaileek adierazi dutenez, besteak beste, "Mikel Laboak Usurbilen izan zuen lotura, Artzarrak, Txaramuntoko abestia...". Bada zer kontatu eta ikasia. Ibilaldia guztiz definitu eta lotzen ari diren arren, geldialdietako bat ere, nola ez, Udarregi Ikastolako parean egiteko asmotan dira.

Eta gero, frontoi ingurura buelta, espresuki Badok 15 jaialdirako Mikel Alkorta (trikitixa eta abeslaria), Luken Arkarazok (kitarra eta abes-



**Igandean, eguerdiko 13:40ak aldera iritsiko da Korrikagure artera. Zubietatik iritsi ere.**

laria), Eneritz Agirrek (abeslari nagusia), Aroa Etxeburuak (baxua) eta Jokin Irastorzak (bateria) osatu duten Iñorkiñak taldearen erromeriaz gozatzera. Herrian zegoen hutsune bat betetzera dator taldea, momentuz igande honetarako soilik.

Iñorkiñak taldeak ibilbide luzeagoa izango duen erabakitzeke du boskoteak. Martxoaren 22ko esperientzia bizi nahi dute lehenbizi, eta gero geroak.

## Lanbide Hastapenekoek prestaturiko afaria

Frontoi inguruko oholtzatik Sutegikora. 19. Korrika iritsi bezperan, Muxurbil antzerki tailerreko helduen taldeak Chejoven antzeulan laburrak taularatuko baititu kultur etxeko auditorioan. Ixabel Agirresarobe herritarrek zuzenduriko taldeko kideak nortzuk diren ikusten ditugunean, eurekin antzerkia egiteko gogoia sartuko omen zaigu. Animatzen direnak, apuntatu daitezela Muxurbil tailerrera. Deitu 675 71 23 83 telefono zenbakira.

Sutegiko antzeulanaren ondoren, 19. Korrikaren aldeko afaria. Xabi Tellok eta Lanbide Hastapeneko sukaldaritzako ikasleek prestaturiko menu goxo askoa dastatu ahalko da, Udarregi Ikastolako jangela berrian. Sarrerak aurrez erosi beharko dira, Aitzagan edo Txirristan. 15 euroren truke.

## Badok 15 jaialdia eta beste Martxoak 20, ostirala

■ 15:00-15:30 aldera, Korrika Txiki, Zubietako Eskola Txikian.

## Martxoak 21, larunbata

■ 20:00 Muxurbil antzerki tailerreko helduen taldeak eskainitako antzezlana Sutegiko auditorioan; Chejov-en antzeulan laburrak.

■ Ondoren, afaria Udarregi Ikastolako jangela berrian. Sarrerak Aitzagan eta Txirristan salgai, 15 eurotan. 100 laguntzako tokia. Menua: bakailao piper beteak, masailak saltsan eta gazta tarta. Sagardoa, ardoa eta kafea.

## Martxoak 22, igandea

■ 13:00ak aldera, Zumarteko trikitilarien kalejira.

■ 13:41 Korrikaren lekukoa hartzea, Lasartetik Zubietako hipodromora doan zubian. Zubietatik Santuenera eta Santuenetik Kaxkora.

■ 14:00-14:10 alderako 19. Korrika Kaxkokoan: Oxtape, Kalezar eta Mikel Laboa plaza ondoko errotonda zeharkatu ostean, Udaletik behera Kale Nagusira, eta euskaltegi paretik N-634 erreperidera, Aginagarantz.

■ 14:20 aldera, 19. Korrika Aginagan.

■ 14:40 aldera, Mapilera heldu eta oriotarrek hartuko dute lekukoa.

■ 18:00 Ibilaldi kulturala, Dema plazatik.

■ Ibilaldiaren amaieran, Iñorkiñak taldearekin erromeria Mikel Laboa plazan (eguraldi txarrarekin, frontoian).

## Martxoak 23, astelehena

■ Bazkalostean, Korrika Txiki Udarregi Ikastolako irakasle eta ikasleen eskutik. Amaiera frontoian, musika jaialdi batekin.

Ondoren, txokolate dastatzea, Etumeta AEK euskaltegiaren eskutik.

■ Oharra: egitarauak aldaketak izan ditzake.

■ Info: korrika.eus / kilometroak.eus

**BORDATXO**  
taberna  
**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

**ALDAMU**  
**KONPONKETAK**  
KALE NAGUSIA 10 - atzekoaldea  
943 372 795

**ETXETRESNEN KONPONKETAK**  
Moduz, azkar eta prezio onean  
MARKA GUZTIAK  
645417665  
XABIER  
Usurbil

**URDAINTZI**  
eraikuntzak  
649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
eraikuntzi@eustoinet.net  
**ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK**

# Bizi esperantza emango dion trasplantearen zain

Jaiotzaz geroztik bidean aurkituriko oztopoak banan bana urte luzez gainditzen jarraitzen duen gazte kementsu baten istorioa segidan. Duela pare bat urtetik Usurbilen, gure artean bizi da, Abdel Nasser Hmed Lopez. Itxuraz bere adineko beste edozein moduko gaztea dirudi. Ez du ordea bizimodu eroso eta lasaia izan. Jaiotzetik ez zebilzkion ondo giltzurrunak. 7 hilabeterekin transplantea egin behar izan zioten. Haur txiki bati halakorik egiten zitzaion lehen aldia zen estatu espainiarrean. 6 urterekin giltzurruna galdu, eta ordutik, dialisia bere eguneroko bizimoduan integratu behar izan du. Eta 21 urte eta gero, giltzurrunik gabe eta trasplante bat izateko borrokan segitzen du. Bizirik gainera, eta ez da gutxi. Estatu espainiarrean dialisian denbora gehien daraman gaixoa dela gogorarazi digu. Tarte honetan, berrogeitik gora ebakuntza egin dizkiote, 27 urteko gazteari. Larriak eta gogorak. 27 urte izan arren, bere esanetan, “70 urteko pertsona baten hezurak ditut”.

Txikitik hasi zuen kalbarioa. “96an koma geratu nintzen etxean”, azaldu digu Nasserrek. Madrilen ospitaleratua zela, galdu zuen giltzurruna. Ordutik giltzurrunik gabe, trasplante baten zain da. Bizi baldintza harrigarrietan. “Ez dut likidirik edaten, betidanik dena gatzik gabe jaten dut. Ez dut pixarik egiten duela 20 urtetik. Ura edaten badut, kontrolatu beharra dut, pisu asko ez izateko. Gogorra da, baina era berean ez zait hain gogorra egiten, horrekin hazi bainaiz”, dio Nasserrek.

Bi hamarkadetako dialisi saioek, momentuz bestelako osasun arazo larrikeria eragin ez dioten arren, hezurdura higatu diote. 27 urte izan arren, bere esanetan, “70 urteko pertsona baten hezurak ditut”.

## Itxarote zerrendan

Etiketarik, kanariar irletatik kanpo bizi behar izan du urte askotan. Lehen aipatu moduan, denboraldi luzea egin zuen Madrilen; 15 bat urte. “Ebakuntzaz ebakuntza” oroitzen duen moduan, eta dialisian. Garai hartan, etxeko bihurtu zituen ospitalekoak. “Harreman berezia sortzen da. Abenduan bertan izan nintzen bisitan”,



Abdel Nasser Hmed Lopez Donostiako Poliklinikan tratatzen dute eta Usurbilen bizi da.

## DUELA BI URTE ETORRI ZEN HONA

**Berrogeitik gora ebakuntza egin dizkiote 27 urteko gazteari. Larriak eta gogorak. 27 urte izan arren, bere esanetan, “70 urteko pertsona baten hezurak ditut”**

garai bateko lagunak agurtu eta oroitzapenak berritzen.

Madriletik Kanariar irletara itzuli zen gero. Han ere handik eta hemendik murrizketak aplikatzen ari ziren garaian izan zuen, Euskal Herriko osasun zerbitzuen berri. Zalantzarik ez zuten izan. Gure artera bizitzera etortzea erabaki zuten. Lehenbizi aita, Nasser duela ia 2 urte. Orain, Donostiako Poliklinikan tratatzen dute. Dialisia eguneroko bizimoduan txertatua du. “Arratsaldeko bostetan sartu eta hamarretan ateratzen naiz, nekatuta, zorabiatuta. Oso gogorra da”, adierazi dio NOAUA!ri. Eta baita arrisku-tsua ere. Edozer gerta liteke eta.

Une zail hauez hitz egitean ordea ez du ahazten, eta behin baino gehiagotan nabarmentzen du, bera pribilegiatua dela, berrogeitik gora ebakuntza eta bi koma egoera gogor gainditu ostean, aurrera egin baitu. “Dialisia oso ondo doakit. Mediki oso onak daude hemen. Oso pozik” sentitzen da. Inguruko laguntza eta babesik ez zaio falta noski, “pazientzia eta konfiantza izateko esaten didate denek”.

## Saharara itzultzea amesten du

Azken albiste itxaropentsua, Bilboko Gurutzeta ospitaletik jaso du. “Guru-

tzetara joan, eta trasplanterako itxarote zerrendan sartzeko arazorik ez nuela esan zidaten. Ezusteko handia izan zen, ezetz esan zezaketen eta. Ez nuen hain azkar itxarote zerrendan sartzetik espero. Alde horretatik oso pozik nago”, dio Nasserrek. Ziur eta zehazki noiz ez daki, baina beranduenez, datorren urtean trasplantea egiteko aukera eskaini diezaioketela uste du. Badu ordea ebakuntzarako oztopo bat; defentsa aldetik ehuneko ehuneko dago. Horregatik, dioenez, “orain organo bat jasotzea ia ezinezkoa da”. Defentsa maila jaisteko tratamendua beharko lukeela dio.

Baina ez du esperantzarik galtzen, konfiantza osoa du medikuetan eta medikuntza aurrerapenetan. Gurutzetako ospitalea, transplante kontuetan onenetakoa dela dio eta giltzurrunen gaian ondo espezializatuak daudela. Etorkizunari esperantzaz heldzen dio, aspaldiko amets bat bete nahi baitu. Arbasoengana bisitan joatea; Saharara. “Saharara itzuli nahi dut ebakuntza egin ostean, familia ikustera. Egun batzuez atsedean hartu eta eurekin egotera. Egunero esaten didate ia noiz itzuliko naizen”, Nasserren esanetan.

Nazioarteko aktibista artean hazia, familia oso borrokalaria duela oroitarazten digu Nasserrek. Berarentzat jarrerara hori da garrantzitsua. “Denok borrokatzen dugu zerbaitegatik”. Eta berak ere bai. Bizi esperantza izateko, bizi kalitate hobea izateko. Egunerokoan zainduz, eta berak dioen moduan, isila den gaixotasunari aurre eginez. Zailtasunak zailtasun, orain arte bezala, argi du; ez du etsiko.



# Zuri

# esker

“Gizarte  
Zerbitzuei esker,  
nire lagun  
Naiarak kalte  
egiten zion  
harremana  
gainditu du eta  
libre bizi da orain.”

Ainhoa, 17 urte



Gizarte Zerbitzuak erabil itzazu  
**Zure eskubidea da**

#ZureEskubidea



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
Gizarte Politikako Departamentua  
Departamento de Política Social

[www.gipuzkoa.eus](http://www.gipuzkoa.eus)

# Martxoaren 26an iritsiko da Laburbira

**O**rdur eta laurdeneko proiektzioan, zortzi film labur ikus-terko aukera izango dugu. "Azken urteetako emanaldi kopururik altuena du aurtengo Laburbirak", Beñat Vidalek adierazi digunez. Filmak hautatzerakoan, hainbat irizpide izan dira kontuan, hala nola sortzaile berriei eta ibilbide luzekoei lekua egitea, filmetako genero eta gai aniztasuna, euskaltzaleen mugimenduko lanei lehenetasuna ematea eta abar.

**12. ediziora iritsi da Laburbira eta 29 herritan egingo dira proiektzioak. Urteen poderioz, egitasmoa sendotu den seinale. Beñat Vidal.** Bai, azken urteetako emanaldi kopururik altuena du aurtengo edizioak, eta hamabigarrena izanik, agerian da egitasmoak erreferentzialtasuna lortu duela, eta gero eta jarraipen zabalagoa duela gainera.

**Filmak ez ezik, zuzendariak ere**



**Euskarazko film laburren ekoizpen berrienak ikus ahal izango ditugu martxoaren 26an osteguna, 19:00etan Sutejin.**

**ibiliko dira biran. Sormen lanen erakusgarri izan ezik, egileak ezagutzera emateko eta sormen lanen inguruan solasean aritzeko aukera paregabea eskaintzen du Laburbirak ezta?**

Hala da. Emanaldi batzuetan solasaldia izango da Laburbiran parte hartzen duen zuzendarietako batenkin. Aukera honek emanaldiari

balio erantsia ematen dio, gutxitan izaten baita aukerarik sortzaileekin beraiekin lanari buruzko gogoetak konpartitzeko.

**Lehen proiektzioak egin dira. Usurbilen martxoaren 26an ikusi ahal izango ditugu film laburrak. Orain arte, zer nolako harrera izan dute film laburrek?**

Harrera beroa izaten ari dira. Kontuan izan genero ezberdinetako zortzi film labur direla, eta ahalik eta publiko zabalena gogobetetzeko asmoz hautatuak direla; beraz espero dut Usurbilen ere jendea pozik eta gustora geldituko dela ikusitakoarekin.

**Laburbira erreferentzia da zinemaren zaletuentzat, eta zinegileentzat? Zinegileek nola ikusten dute Laburbira?**

Ba hori beraiek erantzun beharko lukete... Baina iruditzen zait publikoarentzat erreferente bilakatu den bezala, zinegileentzat ere badela.

Laburbiran gainera, urterto saiatzen gara esperientziadun sortzaileak eta hasiberriak uzartzea, haienzako ere publikoarengana iristeko aukera izan dadin zirkuitu hau. Beraz, esango nuke zinemagileek ere begi onez ikusten dutela.

# Zortzi film labur, zortzi harribitxi

## “Ein Land”

Igone Arreitunandia Berridi, 2014.  
Iraupena: 5´32´´.



“Lehen pertsonan egindako entsegua da, non zuzendaria familia, gizartea eta generazioaren inguruko begirada nostalgiko eta autokritikoa trazatzen duen. Film zatikatu bat proposatzen da, zuzendariaren bizitzaren dekonstrukzioa. Irudi eta soinuen korrelazio bidez, bere beldur, errezelo eta irrikak azalduko ditu, imaginario familiar eta sozialaren bidez. Izen bereko film luzea burutzen ari da zuzendaria Berlinen”.

## “Hubert Le Blonen azken hegaldia”

Koldo Almandoz, 2014.  
Iraupena: 10´.



“Motorraren aitzindari baten istorioa; haurra zela burruntziekin amets egin zuen eta bere ametsa betetzen hil zen”. Koldo Almandozek Berrian adierazi zuenez, sormenerako aukera handiak ematen ditu istorio honek. “Gertaera erreal bat kontatzen du, baina gure asmoa ez da izan pertsonaia historiko bat aldarrikatzea, pelikulako bi pertsonaia nagusien berezitasuna erakustea baizik”.

## “Aitona mantangorria”

Kepa Errasti, 2014.  
Iraupena: 20´.



“Josu etxera itzuliko da Gabonak pasatzera. Aitonaren iraganari buruzko zerbait jakiteak arrebarekin eta aitonarekin berarekin duen harremana berplanteatuaraziko dio”.

## “Don Miguel”

Kote Camacho, 2014.  
Iraupena: 5´42´´.



“Eugenio, aizkora eskuetan duela, Don Miguelen botikan agertzen da, pletoriko. Azken honek paper batzuk sinatzea nahikoa da bankuak Eugenioren eskatu duen dirua mailegatzeko”.

## “Arconada”

Asier Urbieto, 2014.  
Iraupena: 10´23´´.



“Jones Arconada izan nahi du baina ikastolako futbol taldeko atezain ordezkaria da”. Zinebi jaialdian, euskarazko film labur onenaren saria jaso zuen”.

## “Zela Trovke”

Asier Altuna, 2013.  
Iraupena: 13´15´´.



“Moritat hilketei buruzko Europa Erdiko herri-kanta zaharrak dira. Horietako bat da Zela Trovke eslovakiarra, eta Holland Baroque Society-k bere Barbaric Beauty kantutegirako berreskuratu du. Maite Larburu aipatutako orkestrako biolin-jotzailearen eskutik jakingo dugu zertaz ari den abestia”.

Asier Altunaren Zela Trovke Goya Sarietarako aurre aukeratua izan zen, Laburmetrai Dokumental Onenaren atalean. Horretaz gain, bide luzea osatu du filmak. Munduko jaialdi askotan parte hartu du eta 24 sari jaso ditu.

## “Zaunk!”

Ixone Aroma, Aritz Lasarguren eta Asier Vera, 2014.  
Iraupena: 2´.



“Askotan nahita euskaraz jakin pertsonari gazteleraz egiten deutsegu. Baina txakurrei? euskaraz beti, ezta? Hemen horrelako situazio bitxi bat gure pertsonaiak berehala konponduko duena. Egin Zaunk!”.

## “Zarautzen erosi zuen”

Aitor Arregi, 2014.  
Iraupena: 16´.



“Mireni, kafea eskatzerakoan, askotan txanda-pasa egiten diote. Baina bere dendatik norbaitek alkandora bat lapurtu duela konturatzen denean, beste behin etsitzeari uko egiten dio”.

Aitor Arregiren film laburak Lekeitioko Zine Bilerako errekonozimendua eskuratu zuen, profesionalen arloko film onenaren saria eraman baitzuen.

## Euskarazko ikus-entzunezkoen erakusgarri

Laburbira, euskarazko ikus-entzunezko produkzioa ezagutarazi eta herrietako kultur eskaintza aberasteko helburu duen zirkuitua da. Martxoaren 28ra arte, 27 herritan izango da. Bizkaian, Araban, Nafarroan eta Gipuzkoan izango dira emanaldiak. Horrez gain, bi emanaldi berezi izango dira zirkuitutik kanpo; bat Valentzian, eta bestea Parisko Euskal Etxean (azken hau, apirilean).

Euskaltzaleen Topaguneak antolatzen du (bertako kide da NOAUA!) eta Eusko Jaur-larritza, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundien babesa du.

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU



**ZURE GORPUTZA  
LIRAINTEKO GARAIA**

Gorputz espolioa eta masajea  
Aurpegiko garbiketa osoa  
Bestelako tratamenduak

Eguerditan irekia! Nagusia 8, Usurbil tel: 943 36 36 41

# Ontzi arinak ondo bereizteko zenbait gomendio

**BAI**

- Komertzioetako plastiko poltsa
- Kafe kapsulak hustu
- Albal papera
- Aerosolak
- Erabili-hustutzeko lorontziak
- Plastikozko botilak, letak eta tetrabrikak
- Marrubien egurrezko haxe txikiak

**EZ**

- Medikamentu kantarrek
- Ontziak likidoarekin (hustu eta talestu)
- Tonerrek
- Lorontzi finko gogorak
- Plastikozko eskularruak
- Jostailuak

# Arantzazura oinez, apirilaren 2an



**Argazkian, iazko ibilaldiko partehartzaileetako batzuk. Aurrez izena eman behar da.**

**E**gun pasa egiteko "irteera oso polita" prestatu du herritar talde batek, apirilaren 2rako. Azken hiru hamarkadetako ohiturari eutsiz, badira "Ostegun Santu" egunez, urtero Usurbildik Arantzazurako bidea oinez osatzen duten mendizaleak. Usurbildarrak eta ingurueta herrietatik etorritako kideek osatzen dute taldea. Goizean goiz, frontoi atzetik abiatu eta tipi-tapa Gipuzkoako mendietatik barrena Arantzazuraino joaten dira oinez.

Duela 30 urte baino gehiago, "3 lagun hasi ziren ibilbide hau egiten" antolatzaileen esanetan. Gero, pixkanaka jende gehiago batu zen. Usurbildarrak, eta baita inguruko herrietako mendizale gehiago ere; Donostia, Amasa, Zizurkil edota Tolosa aldekoak. "Berrogeitik gora lagun joatera heldu ginen", diote. Bidean beraz, jende berria ezagutzeko aukera izan dute.

## Bidean, autobus zerbitzua

Argi denez, sasoi ezin hobean dauden betaranoek Arantzazurako bidea osatzen segitzen dute. Baina kide berriak batu nahi dituzte taldera. "Mendizalea dena animatu dadila", luzatzen dute gonbita. Aurretik ibiltzea aholkatzen dute noski. Baina nabarmen dutenez, bidean egingo dituzten zenbait geralekuan autobusa izango da. Honenbestez, ondoezik sentitzen denak, edo bide osoa egiterik ez duenarentzat garraio zerbitzua

antolatuta dute.

Bidean gainera, bakoitza bere erritmoan joan daiteke. "Martxa normalean joaten gara. Beti joaten da bat atzetik azkenekoekin. Bidea ez da kienak, zaintzailea joaten da. Biderik ez dakienak beraz lasai", antolatzaileen esanetan. Batzuk lehenago, besteak geroago, denak bazkaritarako biltzen dira Legazpian. Afari merienda egiten dute helmugan, Arantzazun. Eta lehenago, goizean hamaiketarako tartea hartzen dute baita. "Giro ona tokatzen bada oso bide polita da. Paraje berriak ikusteko aukera eskaintzen du. Toki berrietatik ibiltzekoa. Gehiena mendi bidea da".

## Usurbil-Arantzazu

- Eguna: apirilak 2 osteguna.
- Abiatzeko hitzordua: goizeko 05:00etan, Mikel Laboa plazatik.
- Ibilbidearen luzeera: 63 kilometro.
- Iraupena: 12-13 ordu.
- Prezioa: 50 euro, autobuseko joan etorriak eta eguneko otorduak barne. Aipatu diru kopurua, egunean bertan ordaindu behar da.
- Otorduak: Mandubian hamaiketako, Legazpian bazkaria eta Arantzazun afari merienda.
- Eraman beharrekoak: biderako otartekoa eta ura. Aldatzeko arropa. Itzultzeko autobus zerbitzua, ibilbideko puntu ezberdinetan eta helmugan.
- Izen emateko: 600 669 276 (Joxemiel Otaegi).

## Erreboteko finalak, etxeko artean

Oiartzun eta Villabonako aurkariekin zizuten neurketan irabazi ondoren, zubietarrak bakarrik heldu dira, Gipuzkoako Errebote Txapelketako finalera. Larunbatean jokatu zizuten azken partidak, Zubietako frontoian. Txapeldunak eta txapeldun ordeak, denak etxekoak ditugu:

### Gazteen mailan:

Txapeldun ordeak: Antton Arrillaga-Txomin Bordagarai.

